

Begoña Bilbao Alboniga

VIII-1996 (Akzesit)

Bermeon 1932ko azaroaren 23an jaioa.

Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatua.

Sariak: 1988ko maiatzean «Bermeo» saria. 1990eko azaroan «Irun Hiria» saria. 1994ko otsailean «Bermeo» saria. 1996ko azaroan «Pedro Atarrabiakoa» saria (akzesit). 1997ko martxoan «Erroxape» 1.saria eta 2.saria. 1997ko maiatzean «Itsas gizonen gizarte Institutua» saria Bilbo. 1998ko ekainean «Kimetz» saria Ordizian. 1998ko urrian «Idatz & Mintz» saria (akzesit) Bilbo.

Ikerlanak: «Bermeoko euskera»: lexikoa, esamoldeak, aditza.

Itzulpenak: «Bermeo la sauvage» frantsesetik euskerara.

ITSASOA BETI EMANKOR

I



.urtean, munduko gerra zela eta, kantauri itsasoaren azalera gauza bitxiez betetzen zen sarri askotan. Behin baten, hogei kilo inguruko koipe trosko zuri-zuriak agertu ziren, itsastxoriak bailiren, itsaso urdina estali zutelarik, elurreztatuko zelai zabal infinitoan bilakatuz. Koipe zatitzar horiek jaboia egiteko balio zuten, eta egin ere egin zituzten gure amak eta beste etxekoandre askok.

Beste behin, udaberriko loreek zuhaitzak zuritzen dituzten bezalaxe, konta ezinbeste gurin pakete etorri zitzaizkigun, berriro ere Kantauri itsasoa zurituz, Kristok eginiko mirariak legez, milaka umeren mixeria gorria nolabait leuntzeko. Holandatik irtenda nonbaitera zihoan merkatuntzi batenak zirenaren zurrumurrua zabaldu zen herrian. Itsasuntzi hau alemanek hondoratutakoa zela eta, gizonen bat ere bizirik aurki zitekeenaren ustetan, errekorridak egin zituzten gure herriko arrainuntzi batzuek; hala ere inor ez zuten aurkitu, agian, urrun hondoratu zelako edo izango zen.

Beste gauza asko ere, ipar haizeak eta itsasoaren eraginez, itsasertzeko uretarantz etorri ziren. Horrela, goiz argitsu baten gaileta sikuen ehundaka kaxak agertu ziren gure kostako haitze-

tan. Itsasoak guztia hartu eta poliki-poliki kostarantz zekarren, hemengo biztanleen poza sortaraziz.

Gure jolasak ere, askotan, itsasertzean egiten genituen. Hondartzara edo haitzetara joaten ginenean zokondo guztiak miatzen ibiltzen ginen, bazterrak arakatzen, altxor eder preziaturen bat idoro genukeelakoan. Sarritan txirristadaren bat egitean haitza tartera jausi eta soinekoak bustitzea ere suertatzen zitzaigun, eta, orduan, pantalonak, kuleroak kendu soinetik eta eguzkitan, haitza gainean jarriz, jo eta jo, «siku siku laster siku» behin eta berriz errepikatuz, berba magiko hauek berehala efektua egin eta lehortuko zituztenaren itxaropenean. Eta etxerako ordua iritsi, baina sikatu ez eta berriro jantzi behar bustita zeuden pantalonak, eta etxerantz abiatuz, amaren aldarriak eta txitxumarkadak jasateko prestatzen ginen, are gehiago guretzat oso baliotsuak ziren altxor bitxiak eramatekotan (haitza tartean aurkitutako itsaskurkuiluak, harritxoak eta abar). Zartadak eta zapuzkadak baino min gehiago ematen zidan, neraman guztia, zertzuk ziren begiratu ere egin barik, amak sastarretara jaurtitzeak. Hala eta guztiz ere, handik ordubetera zabor tartetik atera eta amamaren etxeko ganbaran gordetzen nituen, gero behar zirenean errazago baitzen ateratzea. Baina askotan amamak, amak egin zuena egiten zidan berak ere, hau da, sastarretara bota hondartzan edo haitzetan aurkitutako eta guretzat «harri bitxiak» ziren kristal zatiak eta arroken arteko zirrikituetan bilaturiko gauza arraroenak.

Garai horretan ez ginen umeok bakarrik bilaketa lanean geniharduenok, ez; helduak ere hor zebiltzan hara eta hona, haitzerik haitz, guztia miatzen, zer aurkituko.

Dena dela, aurkikuntzarik garrantzitsuena gomak, kautxozko laukiak hobeto esanda, aurkitzea izan zen. Metro karratua zabaleran eta hirurogeita hamar zentimetro inguru altuerakoak ziren. Batzuk laminaz osotutakoak, urdaia bezala ebakitzen zirenak besteak, hauek preziatuenak. Milaka agertu ziren itsaso zabalean, hau da, herritik nahiko urrun. Hauek ere gerraren ondorioz hondoratutako merkatuntziren batean edo batzuetan zihoazen, batek

daki nora. Baina bidaia moztu zioten eta seguru herri honetako askok mila bider bedeinkatu zuela gerra madarikatu hura, eskerrak hari, aberastu baitziren.

Hasiera baten inor ez zen ohartu goma fardo horien balioaz, baina lehenengo laukiak prezio onean saldu zirenean, orduan konturatu ziren arrantzaleak eskuetan zeukaten altxorraz. Arrantzan egiteari utzi eta gomatan aritu ziren.

Asko harrapatu zutenak aberastu egin zirela entzuten nuen. Malbabiskozko karamelo erraldoiak ziruditen fardoak nasa gainean, bata bestearen gainean ikusteak edozein harritu zezakeen. Zatirik txikienak ere bere balioa zeukan eta marerdikoek ederto irabazten zuten partikararako dirutxua, egunero fardoei txokolate koloreko zatitxoak eta pelenkak kenduz, nahiz eta debekatuta egon. Guk ere geureak egiten geniharduen. Behegainean geratzen ziren brintza guztiak batzen genituen, birrinduz gero, pelotak egin ahal izateko. Larru zatiak brintzaz betetu ondoren, borobilean josi eta zeinak pelotarik politena eta sakerik handienekoak egiten saiatzen ginen.

Lehenengotan, goma fardoak, hogeika, berrogeika edo hirurogeika harrapatzen ziren itsasoan. Asturua bere alde zeukanak, edo asko ekartzen zutenek partila ederrak egiten zituzten. Horrela, «gomazko etxeak» zeritzatenak ere irabazi horiekin erositako etxebizitzak ziren. Hasiera baten brauntadan sartu baziren ere, gero gutxitzen joan ziren ez baitziren arrainak kumeak egiteko. Beraz, azkenean, banaka batzuk besterik ez zituzten harrapatzen eta hori ere txokotxoa zen, hau da, aurkikuntza ona, prezio altuan saltzen zirelako. Batzuk bazekiten alterria zein zen, baina sekretuan gordetzen zuten goma fardoak aurkitutako lekua edo alterria. Eskasidade horrek prezioak gorakada egitea suposatzen zuen. Lehen mila pezetako partila egin ahal izateko, berrogei edo gehiago harrapatu beharra bazegoen, gero nahiko zen bakar bat ekartea diru hori baino gehiago partitzeko.

Hala ere zenbat susto, ikara eta nahigabe pasatu behar, bakar hori saltzea lortzeko. Ez zen erraza, ez, enbarkazinotik goma fardoa ateratzea. Untzia porturatzen zenean, karabineroek zehatz

mehatz, brankatik poparaino, barru eta kanpo arakatzen zuten untzia. Horregatik, inork gomarik aurkitzen bazuen isilean gorde beharrean zegoen eta jilibioak egin behar ziren fardoa izkutatzeko, zeren aurkituz gero, dekomisoa zetorren, baita zigorra ere. Batzuek leku aproposak eraiki zituzten untzi barruan horretarako. Zailena ateratzea zen. Eta honelako aurkikuntza isilekoa izanda ere, azalean zegoen sekretu bat zen; emakumeek batez ere, berehala jakiten zuten nork zer aurkitu zuen.

–Orain ere txokotxua egin duzue.

–Guk? Guk ez alabatxu! Nik ez dakit ezer!

–Ez ukatu, herri guztiak dakiena da eta.

–Ba geuk baino gehiago jakitea da hori.

Ezeztatuta ere, denen ahoan zebilen gauza zen. Txarrena karabineroen belarrietaraino iristea zen, zeren, hauek, beste gauza batzuetan malguagoak izan arren, ordena gogorrak zeuzkaten goma fardoei zegokienean.

–Ene alabea! Jakin behar ez duena enteratzen bada, gu hirurok bost!

–Ez pentsa, eurek badakite nori begi argia ipini.

Zuoi ondo joan zaizue orain arte ezta?

–Zuoi ere ez asko txarrago, asike egon isilik, isilik egon!

Egia zen. Asturiasetik ekarten zuten ikatza, indaba edo honelako gauzak lehorreratzean, ezikusiarena egiten zuten karabinero askok, eskupekotxoa edo harrikatz otzara irabaziz. Hala ere guztiak ez ziren hain flexibleak. Bazegoen bateren bat, parkatzen ez zuena, eta horri goardia egitea tokatzen zitzaionean inor ez zen ausartzen ezer ateratzen eta gordia aldatu arte itxaron beharra zegoen. Horregatik nire aitari eta bere jabekideei, beraien ezaguna zen karabineroa goardian egoteari itxarotea zela komenigarriena iruditzen zitzaien.

II

Gure bapora ere suertosoa izan zen kautxo banaka horiek aurkitzen. Eta itsasuntzitik goma ateratzeko bizitzen izan genuen egoera, pelikuletan ikusten direnen inbidia gabekoa zen. Nire burua ere barruan sartzen dut, zeren ni eta nire ahizpa parte izaten baikinen abentura horietan, beste bazkideen seme-alabekin batera. Abentura horietako batek, gaurko trafikatzaileen inbidia sortuko luke ausardiari dagokionean.

Behin, goma fardo bat aurkitu ondoren, ondo saltzeko ahaleginak egin behar zirela eta, horretarako prestakuntzak egiten aritu ziren gure aita (mekanikoa) eta patroia. Eroslea aurkitu zutenean, fardoa nola atera untzitik pentsatu zuten. Eta bai ondo prestatu ere aterakuntza. Gauzak erabat ondo planifikatuta zeuden, filme bateko gidoia balitz bezala.

Eta neguko gau ilun batean, gaueko hamarretan, puntuan, antzerkiari hasiera eman genion.

Lehenengo pausua fardoa loijara ateratzea zen, gero, handik kanpora eramango zuen kamionetara eramateko. Loija portu zaharreko sarreran, ezkerretara aurkitzen zen. Eskumara, moilearri jarraituz eta bokalerako iskinan bertan karabineroen kaseta zegoen. Bokaletik begiratu ezkero, ez ziren karabineroak ikusten eta beraiek ere ezin zezaketen bokalean zegoen inor ikusi, iskina pasatu behar baitzen hori gertatzeko. Erdi parean elizarantz zihoan kale estuaren aurrez aurre amarratu zuten enbarkazioa, gomarekin karabineroen aurretik igaro beharrean, atzealdetik irtetzeko loijara. Beraz, momentu hori iristean, karabineroak entretenita behar zeuden egon, eta berdin loijan sartzerako momentuan ere, baina eskenatokia aldatuz. Lehenengo jarduketa portu aldean antzeztu behar zen eta gero bokalean egin beharra zegoen antzerkia. Horrela egin zen. Aktore-aktoresak, kasu honetan gu umeok, prest geunden apuntadoreak zioenean karabineroen aurrean antzeztu behar zena eskenan jartzeko.

Eta hasi zen sesioa. Kaseta aurrean geunden. Patroia, gure ama, beste hiru untzi-neskatilak, haien seme-alabak eta nire

ahizpa eta ni, guztira zazpi ume (lau mutil eta hiru neska), lau emakume eta patroia. Azken hau karabinero batekin ari zen hizketan; beste karabineroak kaseta barruan ziharduen zerbait egiten. Patroiak, barrukoak (tripulanteak) bapora amarraten joan zirela aijenera eta haiei itxaroten geundela esan zion karabineroari. Hau ezaguna izan arren, momentu hartan ez zegoen horren «ikusmena galdu» zitekeenaren posibilitaterik, ez zegoen «erosterik» eta horregatik aritu ginen gu antzezle lanetan.

Halako baten, Kesusito korrika etorri zen. Patroiaren semea bera, gutariko zaharrentxoena izanik, hura zen seinaleak eman behar zituena.

–Ama! Txiselarri naiz!

–Neu ere bai! –esan zuen Mikelek.

–Eta neu!

–Baita neu ere! –denok ginen txiselarri.

–Ume demoninuok! Egin berton!

–Non? Hemen aurrean?

–Ez, kasetaren iskinatxoan, hor atzetxoan.

Bokalaren bestaldea izan zen txisa egiten jarri ginen iskina, horrela, karabineroen arreta honantz joan zen. Ikustekoa benetan zazpi umeok txisa egiten; batzuk makurtuta, neskak pantalonak beherantz eginda eta mutilak hormara begira zutunik, baina dena aldarrika eta algaraka. Ni pixka bat lotsatuta nengoen guztien aurrean txisa egiten egon beharraz, baina egin behar zen, eta gu aktore onak ginen.

–Estos niños no tienen reparo alguno para mearse en cualquier sitio –esan zion patroiak karabineroari, berriketari eutsiz.

–Los niños siempre niños –erantzun zion karabineroak, guk egiten genuenari inportantziarik eman gabe.

Hamar minutu behar ziren baporetik fardoa ateratzeko eta hori elizako erlojuak markatzen zuen.

Kesusito berriro joan zen bokalerantz. Bitartean emakumeek, larritzen hasita zeudenaren keinuak egiten zituzten eta gazteleraz jardun zuten.

–Ya tardan. ¿Se habrán ido a la taberna dejándonos aquí?

–No mujer, ya sabes que se tarda mucho en amarrar el barco –erantzun zien lemazainak.

–Tranquilas que no se habrán marchado con otras-kanpoan zegoen karabineroak irrifar batez. Besteak barruan jarraitzen zuen bere gauzetan murgildurik.

Momentu horretan Kesusito Mikeli deika hasi zen bokaletik.

–Mikel! Begiratu! Katu bat dago hemen eta arratoia harrapatu du.

Antzerkiaren bigarren zatia antzeztu behar zen eta eskenatokia ere aldatu beharra zegoen, hau da, denok, baita kaseta barruan zegoen karabineroa ere bokalera joatea zen hurrengo pausua.

Mikel, Kesusitok esan zion tokira heldu zenean eta guztia zela gezurra ikustean, borrokan hasi behar zen eta hasi ziren biak pelikan.

–Gezurti! Txo, niri gezurra esan? Orain pagatuko duzu. Anai! Etorri hona!- denok hara joan behar genuenaren seinalea zen.

Armatu zen armatekoa. Kutxiloak eta askak. Antzeztekoa zen pelikada, benetako istiluetan bilakatu zen. Lehenengo umeok hasi ginen geure artean joka eta gero amak, bakoitzaren umeak defendatuz. Han izan ziren degoiluak. Gutxi ziren patroia eta bi karabineroak bakea ezartzeko. Hamar minutu iraun behar zuena ordu erdira iritsi zen. Nire ahizpa negar baten, Kesusitok begia beltzituta, nire soinekoa tarratada eder batez horniturik,

Mikelek zapata bat soinean eta bestea eskuan zuelarik eta Jon Aste Santuko Nazarenoaren antzean aurpegia txarrapatadez beterik. Azkenean amaitu zen guztia eta bagindoazen, amek elkarri berbarik egin gabe, porturantz.

–Las peleas entre chicos pueden hacer enfadar a los padres-esanez, euren kasetan sartu ziren bi karabineroak.

Loija aurreko eskilaretan aita eta beste bazkide biak jezarrita, guri itxaroten zeuden. Ikusi gintuztenean barreka hasi ziren.

–Zeri zaudete barreka? Ez da barre egitekoa gero! Hala da ze, eduki dezagun bakea eta erdu etxera -esan zuen Julitak.

Hala egin genuen, zeren, han jarraitzekotan errematarako bideak egingo ziren seguraski, hori baino guxtiagogatik joan baitira arrainuntziak errematean.

Beste behin, goma fardoa aurkitu eta arrainuntzia Santurtzira joan zen zuzenean bertan ateratzekotan. Han ere txurupinak gertatu zitzaizkien gure aita eta jabekideei. Gauerdia zen eta bapora kaian zegoen atrakatuta, eskilara baten ondoan, hain zuzen. Marea behean egon behar zen eta horri itxaroten, goizalderarte egon beharra zeukaten. Inoiz baino karabinero gehiago zegoen zelatan eta urrun egon arren, arriskutsua zen mometu hartan fardoa ateratzea. Ezin zitekeen kamionetarik, ezta karrorik ere, bapora zegoen lekura hurbildu. Orduan, lepoan eraman behar zen kale tartean zegoen kamionetaraino. Mareak beheraino egin zuenean fardoa ateratzeko prest zeuden; eta nire aita astokiloak, hartu zuen ehun kilotako laukia lepoan eta hasi zen eskilarak igotzen. Baina, goian, kai gainean zegoenak, karabineroak hur zeudela eta, eskuaz beherantz egiteko agindu zion. Eta nire aita fardoa bizkarrean zuelarik berriro beherantz goikoak esan arte itxaroten.

–Auntxek!

Goikoaren seinalea zen. Hartu abiada eta korrika baten kale tarteraino doi doi ailegatu zen. Sartu fardoa kamionetan eta elizakoak hartzeko moduan, behegainean etzanda, adore barik gera-

tu zen. Kotxea martxan jarri zenean eta begien bistatik aldendu, baporera itzuli eta etxerantz egin zuten. Bidean, patroiak eta besteek, aitak sorbaldan zeuzkan zauriak eta hauek ematen zioten samina pixka bat leuntzen jardun zuten.

III

Eta jarraitu zuten arrainuntziek gauza arraroak ekarten itsasotik. Aurkitzen zuten dena ekarten zuten herrira edo lehorrera, gerra denboran kausitutako gauzak zein arriskutsuak izan zitezkeen kontutan izan barik, batez ere metalezko kaxa hertsiak edo horien antzekoak.

Eta zoritxarrez gertatzekoa gertatu zen. 1943ko irailaren 25ean, eguerdiko hamabietan gertatu ere. Herriko jaiak igaro ondoren, arrainuntziak itsasoratzeko prest zeuden; baina eguraldia ez zela ona, edo arrain eskasia zegoelako, ez dakit zer izan zitekeen arrazoia, dena dela, itsasora irtetzen berandutu egin ziren eta itsasuntziak herrian zeuden.

Portu zaharreko uhinurrategi aldean, Hiru-iturrien parean, gure arrainuntzian eta beste batzuetan, hurrengo egunean itsasoratzeko gauzak atontzen ziharduten barrukoek. Gure ama nasa gainean zegoen biberak ekarten etorrita, beste aginduren bat bete behar bazen jakiteko patroiaren zain. Lemazainak kasetatik irten eta mutilari, marerdikoari zuzenduz zera esan zion:

–Txo! Roman! Ekarrik loijan dagoen buje txikitxoa, badakizu, itsasoan topa dugun bujetxoa, batela amarrateko beharko dugu eta.

–Buje hori fundizioan dago, zirgilo bat behar izan du eta neuk eraman dut orain dela hiru egun –erantzun zion nire aitak makina barrutik burua aterata.

–Ez, loijan dago, atzo gauean neuk ikusi dut bertan harrikatza partitzen egon garanean; antza bateren batek ekarri du –esan zuen nire amak– Txetxotxu, bila bazoaz, sartu eta ezkerratara

daukazu kaxa baten barruan sartuta, enbarazua baino ez du egiten eta, orain hona eta gero hara, bota-botaka ibili behar dugu beti.

Egia zen. Ni ere loijan nengoen bisperako gau hartan eta beste umeek ere han ziren euren amekaz. Ohitura bat legez, bapora Aviles edo Kijoira joan ezkero, beti ekarten zuten harrikatza, eta arrainuntziko bazkideek hilero, edo behintzat sarritxo, banatzen zuten etxerako ikatza.

Gau hartan ere han zebiltzan ama eta beste hiru untzi-neskatilak harrikatz otzarak betetzen. Hori eginez gero, zozketatu egin behar ziren, nori zein tokatu. Bakoitzak gauza pertsonal bat ematen zion gutariko umeren bati, zer zeinena zen jakin gabe. Lau gauzak batu ondoren, bakoitza otzara baten jartzen zen eta objetu horren jabearena izaten zen zegokion otzara. Hala eta guztiz ere, ez zen faltatzen berbalekurik, otzara bat bestea baino beteagoa zela eta ez zela.

Eta buje madarikatu hura, jauzika esku batetik bestera eta tokia milaka bider aldatuz, bota-botaka hurrengo egunari itxaroten.

Irailaren 25a. Eguerdiko hamabiak. Roman patroiaren agindua betetzen zihoan bitartean, ama dendara joan zen falta ziren biberak bila. Sardin-otzara buruan zeramalarik biberekin, porturantz abiatu zen. Baina Etxepearen parera ez zen ondo iritsi, eztanda izugarri batek buruko otzara lurrera jaurti zionean, eta ia ia bera ere, nasa gainetik behera bota zuen leherketaren kolpeak. Lurrera jausi eta konorte barik geratu zen.

Momentu batez, isilunea gertatu bazen ere, berehala hasi ziren karraxiak, dena alauria, denak korrika batera eta bestera, zer gertatzen zen jakin guran. Izan ere, eztanda horren oihartzuna herri osoan entzun zen. Gu ere eskolatik arinago bidali gintuzten hermana Secundinak. Denek somatzen zuten zerbait gogorra gertatu zela. Gu ikaratuta geunden; berriro ere gerra zetorrela pentsatu nuen.

Laguna eta ni Etxepera ailegatu ginen, baina han ez ziguten aurrera egiten utzi. Apur bat harantzago, lurrean etzanda gizonezkoak ziruditen pertsona batzuk ikus genitzakeen. Izara zuriez estalita zeudenez, nortzuk ziren jakiteko irrikaz, ez zitzaigun otu besterik, goikaldetik joan eta handik, eskilaretatik Hiru-iturrietara jetsita, etzanda zeuden pertsonengana hurbiltzea baino.

Jendea entretenita zegoela profitatuz, urre-urrean jarri eta ume inozo eta ausarta hark, estalitakoen aurpegiak ikusteko asmoz izara altxatzeko eskua luzatu nuenean, zartazo ederra hartu eta marrada ez txikia jaso nuen han zegoen emakume batengandik. Haietariko batek makinistaren alaba nintzela esan zuen eta nire ama Etxepeko tabernan zegoela konorte barik, eztandaren kolpeak lurrera jaurti zuelako. Hori entzun nuenean, laster bururatu zitzaidan han etzanda zegoenetarikoren bat nire aita zelakoa. Amaz ahaztu eta negar baten, berriz ere izara altxatzeko keinua egin nuen, baina emakume batek amarengana joateko agindu zidan. Ez nion jaramonik egin.

–Alabatxi, erdu hemendik, hemen ez daukazu zereginik eta.

–Itxi niri baketan! Aita nahi dut ikusi! –aldarrikatu nuen gorpu haietariko bat besarkatuz

–Hau ez da zure aita, zure aita hor dago baporean.

Baina ez nion sinestu. Besotik hartu eta neuk gura ez nuela handik atera eta ama zegoen tabernara eraman ninduen. Ama orduantxe hasi zen konortera etortzen eta bere aldamenean zegoen emakume bat ama lasaitzen aritu zen.

–Non dago nire senarra?

–Trankildu zaitez, ez da izan zure senarra, Jose izan da, Montañonekoa, gizajoa!

–Egia diostazu Baldomera?

–Baietz Lubisa, sines iezadazu. Zure zorionerako eta Elisaren zoritxarrerako.

–Orduan, zer izan da? Hildakorik? Zaurituk?

–Bonba izan dela esan dute Ayundatia-koek. Bai hildakoak eta zaurituak egon dira.

–Eta nortzuk? Zenbat?

–Ez dakigu oraindino, baina batzuk dinote hogeiren bat izan litezkeela. Hala eta guztiz ere inork ez daki gauza ziurrik. Asko izan daitezkeela larriki zaurituak bakarrik. Mometuz hildakoak sei izan direla badakigu. Zuen arrainuntzikoak bi, Roman mutila eta Maño sukaldaria.

Hori entzutean, emakume harengana hurbildu eta besoetatik tiratutzen nion bitartean aldarrika hasi nintzaion.

–Gezurra dinozu! Han ez da egon Roman! Roman ez dago hilda, gezurra dinozu!

–Baina zer gertatzen zaio ume honi, zoratu egin zaizu ala?

–Gezurra dinozu! –ez nuen beste lelorik.

Bai, hilda zegoen Roman. Hamabost urte zeuzkan eta laster «gizon» egitekotan zegoen arrainuntzian, mutilaren lanak beste batentzat utziz. Ilusio handiaz hartu zuen patroiak albistea eman zionean.

Zeharo fina eta langilea, begirune handikoa pertsona helduentzat. Askotan etortzen zen gure etxera eta nire lehen amodioa sentiarazi zidan pertsona izan zela aitortu beharra daukat. Oso galanta, niretzat ez ezik, beste askok ere «makatza» bezalakoa zela esaten zuten. Baina horrek baino, amoltsua izateak erakartzen ninduen gehien bat. Benetan zen xeratsua eta arras maitemindurik nengoen, nahiz eta ni harentzat umekondo bat besterik ez izan. Olgetan, edo txantxetan hasten zenean, dantzarako trebea zela esanez, nire oinak bere oinen gainean jartzeko agindua ematen zidanean, beste galaxia batera eramana izango banintz bezala sentitzen nintzen. Baina ni umea izanik, berak, lau bost urteko diferentzia horretatik oraindino umeago ikusten nin-

duen eta horrek arrabioa ematen zidan. Horregatik nik sarritan esaten nion:

–Handia egiten naizenean zurekin ezkonduko naiz.

–Horretarako, lehenago asko jan behar duzu eta asko ikasi.

–Eta zuk zer? Asko ikasi al duzu ba, hamaika urterekin itsasora joateko?

–Baina ni gizona naiz– erantzuten zidan haserre bizian jarrita. Horrekin bukatutzat ematen zuen elkarrizketa eta nik isildu beharra neukan. Hala ere, ziur nengoen agindutakoa betetuko nuena, hau da, harekin ezkondu.

Orain, guzti hori hondatuta geratu zen niretzat, eta patroia biziki gorrotatu nuen, berak agindu baitzion bujea eraman zezan. Bera izan baitzen, loijara joan eta buje madarikatu hura ekarteko agindu ziona eta agindua betetzeko, bujea hartu eta baporaren ondora ailegatuz batera, lurrera jaurti zoritxarreko tuntux antzekoa eta sarraskia gertatzearen erruduna.

Leherketa instantean gertatu zen. Bazirudien loijan hara eta hona ibiltzeak, sekula ez zuela kointziditu pistoiarekin, edo, espoletak momentu berezia aukeratu behar zuela lehertzeko. Eta halabeharrez, momentua iritsi zen eta sei lagun hil zituen, beste batzuk hilzorian eta hainbat elbarrituta utziz. Guztira, hilak eta zaurituak hogei lagunen bat izan ziren, gazteak denak bat izan ezik, eta haur txikien aitak gehienak.

Herri osoak hartu zuen parte hileta eta hilobiratzean. Herriko elizarik handienean egin ziren elizkizunak eta kanpotik etorritako agintariak ez ziren gitxi, bai itsas armadakoak, bai lehorrekoak, esaterako gobernadore zibila.

Elizan, erdi ilunetan, zerraldoak bata bestearen ondoan lerrokaturik zeuden. Abadea sentimenduz beteriko sermoia botatzen ari zen, baina nik ez nuen arreta handirik jartzen, beharbada ez nuelako ulertzen haren erretolika, edo, agian, eliza haren itxura ez zelako egokia momentu horretan kasu handirik egiteko.

Nik ez dakit zergatik, baina eliza hori beti iruditu izan zait misteriotsua. Mezatara joaten nintzenean beti aurkitzen nuen ilunetan, beti itzal handien babesean izkutaturik han zeuden santuak eta irudiak. Momentu horretan ere hiruzpalau kandelen argia besterik ez zegoen, eta bera ere aldare nagusian. Beste aldareak, sei denetara, ilunpetan geratzen ziren. Imaginak ozta-ozta nabari zitezkeen eta fantasmagorikoak, mamuak bezala agertzen zitzaizkidan, batez ere Ama Doloreetakoa. Hau beltzez jantzita, balusazko soinekoa eta mantuaz ezein baino goibelago, apenas ikusten zitzaion aurpegi triste negartsua. Bestaldean Kontzezioko ama birjina pixka bat argiago ikusten zen, soinekoak ere zuri eta urdinak baitziren; eta aurpegia ere, apur bat alaiagoa zeukalako. Besteak, esan bezala erditzalean zeuden. Egia da, garai horretan argindarraren murrizketak gogorrak zirela, baina kandela eta argizariak ugari. Benetan sartzen zuen izua eliza hartara sartzeak. Ni derrigorrezkoetan bakarrik joaten nintzen, eskolatik eramaten gintuztenean doi-doi. Hain tristea zen, herritarrek ere uste hori baitzeukaten. Eta are gehiago egun horretan. Amets gaizto batetan legez ikusten nituen katabutak elizaren erdian. Ama eta izebarekin nengoen; hauek ez zidaten beraiekin joaten utzi, baina eman nien asperraldiaz azkenean eraman ninduten.

Izebak eta nik arintxoago irten genuen elizatik eta segizioa igaroko zen kalera, izebaren lagun baten etxera joan ginen handik hobeto ikusi ahal izateko.

Kuriosoa zen kale ertzetan emakume piloak ikustea. Eliza barruan gizonezkoak ziren ia gehienak eta kanpoan, entierroa pasatu behar zen kaleetan, ostera, emakumeak bakarrik agertzen ziren. Oso ondo gogoratzen dut zenbat negar egin nuen eta nola, nire negarrak gogorragoak eta estridenteagoak bihurtu ziren zerraldoak gure aurretik pasatzerakoan. Nire izebak besarkatuta nindukan eta haren soinekoa mela-melata geratu zen nire negarrekin. Zizpuruka, anpuluak etengabekoak izatea nire lehen maitasuna galtzearen zioa bazen, ikuskizun hark ez zuen gutxitzeko aukerarik ematen.

Entierroan zihoazen ia guztiak beltzez edo soineko ilunez jantzita ikusten ziren. Benetako isiltasunean, inork ez zuen murketik ere egiten. Eta niri, hilobiratze harekin, nire sentimenduak betiko zapuztuta geratu eta Romanekin batera lurperatzen zirela iruditu zitzaidan.

Hala ere bizitza arruntak aurrera jarraitu zuen.